



ZIBIL ARLOKO JURISDIKZIOARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Zibil arloko Jurisdikzioari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazioako Kudeaketa, Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsan daudenek; zehazki, justizia administrazioan zibil arloan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek.
2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:

- [Jurisdikzio Zibila online izen-ematea](#)

Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.

3. **AUTOMATRIKULA:** Epea argitalpenaren egunean bertan irekiko da eta **azaroaren 14an goizeko 09:00etan** itxiko da.
4. Azaroaren 25ean posta elektroniko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsoneri, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne**
5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsako hurrenkerak izango du lehentasuna.
6. **IKASTAROA:** Azaroaren 25ean hasiko da, **14:00etan, eta abenduaren 11n amaituko da, goizeko 09:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, moduluak behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu**.
9. **AZTEKETA:** Ikastaroa amaituta, **abenduaren 12tik (14:00etan) abenduaren 19ra (goizeko 9:00etan)** bitartean, ikastaroaren azterketa (online) egiteko epea irekiko da. Ikastaroa gaindituta, ordezkapenak egiteko deitu ahal izango zaie lan-poltsetan daudenei.